

...eta

# Kitto!

859 zkia.  
2013-IX-20



## Mende erdia argazkien atzetik

**EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*





RPS 04/02

# IRAZABAL

---

## clínica dental

- **Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

**Aseguruekin**  
IMO, ADESLAS, SANTA LUCIA,  
FRATERNIDAD...  
**egiten dugulan**  
KONTSULTATU!

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tfnoa. 943 20 85 52  
[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

### ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: **08.00-22.00** / Larunbatetan: **10.00-14.00**

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
itzu  
itzu  
itzu  
**zerbitzua**



**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelarrera,  
gaztelertatik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**

- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

# ASTEAN ESANAK

"Asko sartu dira Ana Botellak, Olinpiar Jokoak direla-eta, botatako esaldiarekin. Zenbat daude, baina, euskal politikarien artean, berak ingelesez baino maila handiagoa dutenak gauza bera euskaraz esateko?"

(RAMON ETXEZARRETA, POLITIKARIA)

"Ulegaitza da *bussiness* klasekoak beste inor baino lehen igotzea hegazkinera; berez, *bussiness*-en bidaiatzea lotsa eragin beharko lukeen zerbait izanik. Baina *economy* kastakoak ere ez gara libratzen: munduko biztanlearen %95ak ez du inoiz hegazkina erabili"

(KOLDO ALMANDOZ, ZINEGILEA/KAZETARIA)

"Inmunitate sistema indartzeko saltzen duten *Lactobacillus casei* esnekian baino hiru aldiz bitamina B6 gehiago dago platano bakar batean. Gauza bera ikasleek adimen errendimendua handitzeko hartzen dituzten pilulekin: sardina bakar batek 90 aldiz fosforo gehiago du horrelako batek baino"

(JOSE MANUEL LOPEZI, KIMIKARIA)

"Mendebaldeak Al Asad-i bere arsenalak entregatzeko exigitzen dion bitartean, EEBB-ek, Errusiak, Britainia Handiak eta Frantziak fabrikatzen jarraitzen dituzte euren instalazioetan"

(ALVARO BERMEJO, IDAZLEA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

JO BATERA TA JO BESTERA.- Alde batetik bestera ibili. "Jo batera ta jo bestera, lehoi billa ebizen eta halakoren batian hara hor nun agertu jakuen".

JO HONA TA JO HARA.- Alde batetik bestera ibili. "Gure gizon gizajua hor ibilli don gau guztian, jo hona ta jo hara: medikuok, abadiok eta gaiñerakuok aztartzen".

## eskutitzak

### 1963-KOEN BAZKARIAREN INGURUKO OKERRA ZUZENTZEN

Aurreko asteko aldizkarian, Danon Ahotan atalean kaleratu genuen kintaden bazkariari buruzko albistean hankasartzea egin genuen 1963an jaiotakoek izena ematean sartu beharreko diru kopuruan: **60 euro sartu behar zirela idatzi genuen, baina sartu beharreko kopuru zuzena 80 eurokoa da.** Beraz, urriaren 12an egingo den

bazkari-jaira joan nahi duenak Kutxabankeko 2095 5035 00 9112868907 kontu korrontean 80 euro sartu beharko ditu, izena-abizenak argi adierazita. Beste zalantzarik izanez gero, 2013@gmail.com helbidera idatzita argitzeko aukera izango du.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONORAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /  
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,  
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.  
**PUBLIZITATERA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Jose Valderrey  
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak  
diruz lagundutako aldizkaria



## Lopez Etxeberria, euskal musikaren erritmora

Roberto Lopez Etxeberria diseñadoriak "Gemika" kolekziño barrixa presentau eban domekan Madrilgo Fashion Week dalakuan. Oinguan, gizonendako diseiñuekin batera andrendako sortutako beste batzuk be erakutsi zittuan eta, betiko lez, arrakasta haundixa euki eben eta askorendako bereziki deigarria izan zan modelue-ri laguntzeko erabillittako musikia: Maialen Lujanbiok txapela jantzi ebanian botatako bertua, txistua, Mikel Laboaren "Baga biga higa" abestixa beste batzuekin nahastuta entzun ziran eta desfilea agurtzeko "Agur Jau-nak" aukeratu eban Etxeberriak.

## Dolmenen ibilbidera bisita

Debegesa eta Debanatura alkartiak "Dolmenen Ibilbidia" ezagutzera juan nahi dabenendako bisita gidatua antolatu dabe domeka honetarako. Urteeria 10.00etan hasiko da Karakateko aparkalekuan (Soraluzen) eta hiru ordu eta erdiko iraupena eukiko dau. Parte hartzen dabenak 12 euro pagau biharko dittue (hamaiketakua barne, 12 urtetik beherakua duan) eta alde zurretik izena emotia ezinbestekua da (943191172 edo 695783656 telefonora deittuta). Informaziño osua debabarrenaturismo.com webgunian eskuratu leike.

Bestalde, bertoko turismua indartzeko planeri jarraituta, Euskal Kostaldeko Geo-



parkea ezagutzera emoteko bideo barrixa egin dabe ([www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) helbidian eta Youtuben ikusgai): lau miñutuko ikus-entzunezku geoparkeko toki esanguratsuenak erakusten dittue eta inguru horri lotutako hainbaten berbak entzun leikez lau hizkuntzatan (euskeraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez).

## Kofradixa egunian be eurixa

Aurreko domekan ospatu zan Arraten Kofradixa eta basarritar jubilaue eguna, baiña, arratietan lez, atzera be eurixa bota eban eta, antolatutako ekitaldixak egitteko problemarik egon ez bazan be, oso jende gitxi animau zan Arrate aldera igotzen. Meza osteko dantza eta prozesiñua egiñ eta gero jokututako paella lehiaketan zortzi bikotek hartu eben parte eta bertan bazkaltzen geratu ziranak elizaren arkupietan ipiñi zittuen mahaixak, badaezpada. Arratsaldeko idi probetan, barriz, Elgoibarko Soarterenak irabazi eben, 41 plazak gaintituta.



## Arrate izenekuen jaixa

Hamaseigarren urte jarraixan daroiaz Arrate izeneko andrak irailian, Arratiak pasau eta gero alkartzen, eguna jai giruan emoteko. Aurtien euren jaixak Kofradixa egunerakin bat egin dau eta, bezperan eurixa bota-

tzen hasi zala ikusitta, beste urte batzuetan baiño goizago hartu eben etxerako bidia. Hori bai, eguraldi eskasarekin be umoriari eutsi zetsen eta ondo baiño hobeto ibilli ziran herri kirolen inguruko jokuetan.



## M<sup>a</sup> ASUNCION ARREGI GURUZETA (2013-IX-13an hil zen, 95 urte zituela)

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

BERE ALDEKO IRTEERA MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN  
(IRAILAK 22) EGUERDIKO 12etan, KARMENGO PARROKIAN.



## Errezeta elektronikua geurian be

Atzo bertan hasi dira Eibarko boti-  
ketan errezeta elektronikuaren sis-  
temiari jarraitzen. Oñ arte erabili  
dittugun paperezko errezeteri agur  
esan eta, aurrerantzean, hórren or-  
dez osasun txartela erabili biharko  
dogu botikak erosteko orduan. Ho-  
rretarako txartelaren atzeko partian  
dagan banda magnetikua erabili-  
ko dabe. Urtia amaittu aurretik pro-  
bintziako herri guztietan errezeta  
elektronikoa martxan egotia aurrei-  
kusi dabe agintarixak.



Atzo ipiñi zeben martxan errezeta elektronikua Eibarren.

## Legarreko jaixak asteburuan

Gaur 20.00etan txupinazuarekin hasiko dira Legarreko jaixak. Lehen egun honetarako prestatu daben pogramiari jarraituta, triki-tilarixak eta buruhaundixak lagundutako kalejiria egingo dabe eta illuntzixan patata-tortilla txapelketia jokatu da. Gero auzoko umiendako herri-afarixa egingo da eta, egu-

na agurtu baiño lehen, 22.30xetatik aurrera Garrapata eta Mild Goatsup taldiak kontzertua emongo dabe. Bixar goizetik ekingo detse jaixari, Untzagatik zaharren egoitzaraiño egingo dan kalejirarekin. Eguardixan txorizo pintxo-potia, umiendako jarduerak eta herri bazkarixa egingo dira. Arratsalde-  
rako, barriz, Etel eta Agirrekin dantzaldixa eta Pantxika eta Txinpartaren ikuskizuna antolatu dittue. Txokolatejana eta buruhaundixak lagundutako kalejiria etorriko dira jarraixan eta, jai-  
xa agurtzeko, Seafoid eta Zero Zette taldiak kontzertua emongo dabe. Jaixak Arrajolape Jai Batzordiak atolatu dittu eta aurten txosnan jatekua be eskinduko dabela aditzera emon nahi detse jai-  
xetan parte hartzera juango diraneri.



## autuan

### 1986-KUEN BAZKARIXA

1986xan jaixotakuak ospatzeko bazkarixa antolatu dabe urriaren 5erako eta, eguna ixa gaiñian daguala-eta, juan nahi dabenak hillaren 30erako emon biharko dau izena, Laboraleko 3035 0023 94 02 3007 9179 kontu korrontian 40 euro sartuta. Egunerako preparau daben planari 12.00xetan ekingo detse, danak alkartu eta poteuarekin, Taldiaren erretratu Untzagan egiñ eta jarraixan Arratera autobusian igoko dira, Kantabria jatetxian bazkaltzeko. Eibarrera bueltatzeko autobusa 19.30xak aldera izango da.

### TAILLAR ARTISTIKUAK

Maite Arriagak Arrate Kultur Elkartean eta Bergaran emoten dittuan ikastarueta izena emoteko epia zabaliko dago. Helduendako eta umiendako pintura taillarrak, giza irudixa modeluari zuzenian begira marraztekua eta sormena indartzekua eskinduko dittu ikasturte honetan. Interesa dakanak 622053933 telefonora deittu leike.

**urriaren 6an**  
**AHORA!**  
**TOLOSAN**  
IRTEERA:  
**09.30** etan  
**10** eurotan  
BUELTA:  
**19.00** etan  
**autobus zerbitzua**  
J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

**EGOITZA NAGUSIA**  
**Bidebarrieta 20 - behea, eskuma**  
**M FUNERARIA MUGICA**  
Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba  

- ↳ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko traslqdoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeskadi taldea  
**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

# asteko 19 datua

genero-indarkerixa kasoren barri jaso dabe ertzaiñak urtarilletik maiatzera: gizonak erasotutako hórretatik 13 hamen jaixotakuak ziran eta beste 6 atzerritarak. 2012xan indarkerixa matxistari lotutako 70 salaketa, 12 sexu-erasuak tartian ziralara jaso zittuen udaleko andren saillian.

## Aste ekologikua azokarekin hasiko da

Debabarreneko II. Aste Ekologikua antolatuko dabe Biolur eta Debemenek, eskualdeko udalak lagunduta eta horren harira hainbat jarduera garatuko dira, Eibarren eta inguruko herrixetan. Lehenlengua bixar 09.00etatik 14.00etara Urkizuko parkian egingo dan azokia izango da. Bertako postuetan, Txillarre (Elgoibar), Doniene (Itziar), Lonbide (Aramaio), Ekoalboraz (Elgoibar) eta Zuloeita (Arrasate) basarrietako barazkixak eta Sosola (Eibar), Pikunieta (Antzuola), Aldabazar (Tolosa) eta Idiazabalgo Joseba Saezen ogixa eta gaztaiak erosteko aukeria egongo da. Horrekin batera, Aza ta Porrua eta Biolur alkartiak gaixarekin interesa dakenendako informaziñua banatuko dabe eta 11.00ak aldera Gozogintza taillarra eta erlezaintzari buruzko erakusketia hasiko dira.



Aste ekologikuaren harira, bestalde, datorren eguaztenian 19.00etan "Zergaittik nekazaritza ekologikua?" hitzaldixa emongo dabe Maite Aristegi, Enrike Gisasola eta Nerea Arrizabalaga basarritarrak Elgoibarren (kultur etxian). Eta eguenian abeltzantza produktuen gaiñian jardungo dabe berbetan Deban. Izena emoteko edo informaziño gehixagorako 943761447 telefono zenbakira deittu.

Aste ekologikuaren harira, bestalde, datorren

## Aisialdixa euskeraz gozatu

Eguaztenian aurkeztu zittuen ikasturte honetarako Udalak eta Astixak umien aisialdirako Afariketan eta Zapatuetako Taillarrak programetarako antolatutakuak. Aurkezpenian esandakuaren arabera, "urtero 200 bat umek hartzen dabe parte eta antolatzen diranak oso harrera ona eukitzen dabe beti". Eskintza umien adiñari begiratuta antolatzen dabe: Haur Hezkuntzako 3. maillako umiak urriaren 21etik maiatzaren 30era bittartian astian egun bittan auzo inguruan aisialdixa euskeraz gozatzeko aukeria eukiko dabe. Izenemotia astelehenian, hillaren

23an hasi eta 27xan itxiko dabe Indianokua gaztelekuan (10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara). Hortik aparte, hillaren 23 eta 24an Arrateko Andra Mari eta Amañako ludoteketan be emon leike, 16.00etatik 18.00etara.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maillako ikasliak, bestalde, zapatuetako taillarretan parte hartzeko aukeria eukiko dabe. Aurten Lore sikuak eta errezi-klajia landuko dabe zapatu arratsaldetan Portalean. Eta HHko 3. maillako eta LHko 1. eta 2. maillakuak, gurasuak lagunduta, gomaespumazko txotxongilluak zelan egin diran



Kareaga, Lopez de Viñaspre eta Lapeira aurkezpen ekitaldian. SILBIA

ikasiko dabe. Kasu bixetan, izenemotia ikastetxien bittartez egin biharko dabe.

Eta LHko 3. eta 4. maillakuak hip-hop dantzetan trebatzeko aukeria eukiko dabe. Azken taillar honetarako izen-

emotia Pegoran egin biharko da, astelehenian hasi eta urriaren 4ra bittartian. Zalan-tzak argitzeko Portaleko gazterixa saillian galdetu leike edo Astixara deittu (943206231 telefonora).



Herri-plataformako ordezkariak alkatiarekin. SILBIA

## 2014an hasiko dira ospitala egiten

Eibarren Ospitala egiteko proiektuak aurrera egingo dabela-eta, pozik daguezela azaltzeko prentsaurrekua emon eben martitzenian Miguel de los Toyos alkatiak eta ospitalaren proiektua babesteko herri-plataformako ordezkariak. Erkidego maillan EAJ eta PSE alderdixak adostu daben hitzarmenari jarraituta, Otaolan ospitala eraikitzeko biharrak dato-

rren urtian, 2014an hasiko dira eta 2016rako amaituta egotia aurreikus-ten dabe. Azken aldian zalantza mordua egon da proiektuaren gaiñian, Eusko Jaurilaritza barrixa osat- zian ez atzera ez aurrera geratu za- lako. Bixen bittartian ospitalaren proiektuari babesa emoteko 11.141 siñadura jaso zittuan herritarren plataformiak.



*Pil-Pilean Soraluzeko euskara elkartiak eta Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta datorren asteko zapatuan, iraillaren 28xan **SORALUZEN TOPAEGUNA**, euskaltzalien jai eguna ospatuko da. Goizeko 11.00etan harrera egingo da. Egurdixan Jon Sarasuak liburu barrixa aurkeztuko dau eta goiz osuan Umeen Hiria, berba-probak, Andrabanda feminista, Kantu Jira eta puzgarririk egongo dira. Herri bazkarixaren ostian, Irrien Lagunak, Kultur Gindak, Hezitzaileen arteko jolasak eta kalejiria egingo dira. 18.00etan Euskal Herri osoko euskaltzalien topagunietako ordezkariaren parte-hartzia izango daben ekitaldi nagusixa egingo da. Musika beteko dattu programaren azken orduak, arratsaldian Xero Xiette taldiaren erromerixarekin hasi eta, **22.30xetatik aurrera**, Zubian Kokein eta Gose taldiak emongo dittuen kontzertuekin amaitzeko.*

**ZALOA URAIN (Kokein)**

## "Kontzertua emoteko ilusiño haundixa dogu"

**- Zelan jaso zenduen TopaEgunean kontzertua eskintzeko inbitaziñua?**

Beste kontzertu askorekin pasatzen dan lez, egun horretan joteko aukeria beste barrik sortu zan, gu ezagutzen gaittuan baten batek ez dakit zein ezagutzen dabela, harek beste bat... gehixenetan gauza batek beste batera eruaten zaittu eta Soraluzen hurrengo asteburuan eskinduko dogun emanaldixa be holan lotu genduan. Edozelan be, egixa da TopaEguna antolatzen eta ibiltzen direnetako asko ezagutzen dittugula, moduren batian esateko gertu dakaguz eta joteko eskatu zeskuenian baiezkuia emoteko dudarik ez genduan euki, ilusiñuarekin onartu genduan kontzertua emoteko proposamena.

**- Euskeriaren aldeko jaixan kantatziak esanahi berezirik dauka taldiarendako?**

Bai, holako ekitaldixetara beti pozik jauten gara. Izan be, Kokein osatzen dogunak betidanik egon gara prest euskeriaren alde antolatzen diran jai eta ekitaldixetan parte hartzeko, gustora jauten gara holaquetara.

**- Soraluzekua, gaiñera, ez da izango jai berezixeri lotuta emongo dozuen kontzertu bakarra, datorren hillian Durangon beste hitzordu berezi bat daukazue-eta...**

Hala da, urriaren 19xan Landakon eta Plateruena kafe antzokixan egingo dan Deaffest izeneko jaixak kontzertu mordua hartuko dattu. Gure taldiarekin batera talde zerrenda luziak osatzen dau kartela: Berri Txarrak, Willis Drummond, Non Ser-

vium, Porco Bravo... Talde morduaq batera jardutia beti da aberasgarrixa, gaiñera. Batetik, beste talde batzuringandik ikasteko aukeria emoten dau eta gure arteko hartuemonak sendotzeko lagungarrixa be bada. Eta taldien aldetik holako eskintza zabala daganian, kontzertuak erakarritta batzen dan publikua be zabalagua izaten da. Azken batian talde bakoitxak jarraitzaille tipo bat eukitzen dogu eta, alkarrekin jardutian, publikuak aurretik ezagutzen ez zittuan beste talde batzuren biharra zuzenian entzuteko aukeria dauka eta, gustuen arabera, zaletasun barrixak sortzeko bidia be badira holako makro-kontzertuak.

**- Jaialdixetatik kanpora Emarock izenekuan parte hartzen dozue. Zelako proiektua da?**

Emarock proiektuaren inguruan musikan dihardugun neska mordua batu gara, musika munduko andrak osatzen dabelako Emarock-en ardatza. Kontzertuetan argazkixak etaratzen jarduten daben Gauilunak-eko Saioaren bittartez sartu giñan gu honetan eta oiñ arte egin dittugunekin oso pozik gagoz. Gaiñera, etorkizunian jarraipena eukiko daben proiektua da eta aurrerago horren inguruan gauza barrixak sortzen juango dira. Nere kasuan, gaiñera, Kokein taldian neska bakarra izanda pozik dihardut eta taldekidiak mutillak izanda be nerekin batera Emarockera gerturatu dittut, danak alkarrekin jarduten dogu eta oso esperientzia politta dala uste dot.

**- Goserekin batera, jaixa agurtzeko arduria**

**eukiko dozue. Pentsau dozue nundik nora joko dozuen emanaldixan?**

Normalian ez dogu izaten holako plan zihetzik kontzertuen aurretik, pixkat momentuaren arabera alde batera edo bestera egitten jauten gara eta, horren arabera, batzuetan rockeroagua geratzen jaku, beste batzuetan lasaixagua... Egunian bertan erabagitzen dan zeozer izaten da hori. Dana dala, sanfermiñetarako lotuta eguan kontzertua bertan beheara laga bihar izan genduan, gaixotu nintzalako. Horrelakuak amorru modukua lagatzen detsue beti eta, egixa esateko, Soraluzera gogo morduarekin juango gara, luzaruan ez dogu eszenatokia zapaldu eta zuzenian joteko irrikitan gaoz. Gaiñera, kontzertua gure herritik horren gertu izatian, jende mordua ikustera batzia espero dogu.

**- Uztaillian "Zain egon gabe" bideoklipa estrenau eta egun gitxitan arrakasta itzela euki eban. Honezkeru euskal musikagintzan berezko tokixa lortu dau Kokeinek?**

Pentsatzen dot honetan, beste gauza batzuetan lez, danok geure tokixa dakagula. Hortik aurrera norberak betetzen daben tokixa zelakua dan, haundixa, txixixa... hori oso subjelibua izaten da. Edozelan be guk suerte haundixa dakagu benetan be, urte asko daroiaguz eta, gustatzen jakuna egitteko aukeria eukitziar haratago, guk erabagitzen dogu noiz grabau, nun, biniluan diskua kaleratzia nahi genduan eta hor dago... Behintzat, gure kasuan genkagun ametsa betzeko tokixa lortu dogula esan geinke.

**Gaur 19.00etan Jose Luis Irigoienen erakusketa antologikua inaugurauko dabe Portalean.** "50 urte argazkigintzan eta gero hau!" izendatu dau bilduma berezi hori eta mende erdixan etaratako argazkixen muestria areto nagusixan ikusi ahal izango da urriaren 13ra arte. Ondo prestatu dau aurkezpen ekitaldixa egilliak eta 15 miñutuko ikusentzunezkuarekin hasiko dau ekitaldixa. Erakusketia be ez da makala izango: eskegitta egongo diran 140 argazkixekin batera, beste laurehun be bau dittualako hamar karpetatan. Iazko irailian hasitako proiektua egixa bihurtu da holan: 3.800 argazki guztira digitalizatu ditu batez be zuri-beltza maitte daben fotografiuak. 50 urtek askorako emoten dabe, baiña hamendik aurrerakua be bide horretatik jorratzeko gogua daka egilliak. Erosi leiken liburua be prestatu dau egilliak, katalogo moduan: <http://www.blurb.es/bookstore> helbidian.



Nafarroako Bardeak.

## Zuri-beltzaren erreñuan gozo

**B**ilduma edo data bakotxian agertzen diran argazkixak egindakuaen lagin txiki bat besterik ez bada be, nahikua argazkigintzaren barruan nire bizitza nolakua izan dan ulertzeko", diño Irigoienek. Santurtziarra jaixotzez, 16-17 urterekin hasi zan fotografia munduan, bertako Bihotz Gaztea taldean. 1982xan, Eibarrera etortzian, "Deporrek sasoi hartan Sanjuanetan antolatzen zeban argazki lehiaketan parte hartu neban eta baita irabazi be. Ja-

rraixan kursillo bat emotera deittu zesten". Bi lagun zeguazen orduan Deporreko argazkilaritza batzordian, indarrak ahul, "baiña dozena bat juntauko giñan, komisiñuari bultzadatxua emoteko nahikuak".

Holan gogoratzen dittu hárek urtiak Jose Luis arte mundu horretan "gutziz autodidakta" izan danak. Sasoi hartan argazki libururik be ez eguala diño, "ezta gaztelaniaz be. CCC ikastaro batian eskuratu nittuan apunte ezin kaskarraguak eta baita frantsesez idatzitta zeguan liburu bat", bere errebelatze eta biraje lanetan lagun moduan. Gogua zan nagusi.

Bere kabuz jardun biharrak ez dau iñolako bidetik apartau eta "teknika guztiak" erabilli dittuela diñosku, "zaharrak zein

barririk, beti be zuri-beltzaren bidetik". Gaur egun desagertu diran kolorvir-ak eta halakuak be landu zittuan: "Cibacrhomean egin nittuan gauzatxuek, garestixa bazan be. Kimikia erabiltzen genduan, hamar kubetaren inguruan ibilli nintzan lanian". Onartzen dau aitzindarixa izan zala sasoi hartan Euskal Herrixan: "Bartzelonako bat eta Zaragozako beste bat jarduten zeben bakarrik".

### "Koloria iruzurra da"

Probatzia eta probatzia: horrek gidatu dau bere jarduna argazkigintza esparuan. Gurera etorri zanetik, 1982ttik aurrera, teknikia hartzen zeban neurrixan lantzen zeban berau. Hasierako argazkixak lehiaketetara bialtzeko izaten ziran gehixenak. Sari nahiko jaso zittuan holako konkursuetan, "estatu guztian eta baita naziñoartekuak". Baiña aspertzen juan da eta, lehiaketak pixka bat baztertu eta erakusketetan saiatu da gehixago: "Badira urtiak argazkixekin bildumak egitten hasi nintzala. Nire lanak Andaluzian, Galizian, Portugalen, Iparraldian... toki askotan erakutsi dittut". Hortik jasotako kritikak dittu aberasgarri, eta jaramon haundixa egitten detse, "ezagutzak konpartitzeko balio daben neurrixan".



Cibacrhome.




Kolorvir.



Autodidakta izanda gatxa da maisurik izatia, baiña Cartier-Bresson haundixaren bidia beti mirestu dau - "haren kaleko erreportajien zale naiz oso"- eta Pedro Luis Raota argentinarra be gogoko dau - "haren argazki illunak, kimikoki argittuak"- . Bera be argi-illun mundu horretan murgiltzian sentitzen da erosuen, zuri-beltzaren erreñuan. "Koloria iruzurra dalako..."

Bere bizitzan etaratako argazki guztiak biltzia ez da lan erraza izan, "saritutako batzuk erreperau ez dittudalako, oparitu eta saldu dittudanak be badira... Hórrek bardiñak egittia laborategixan ez da gauza erraza". Ez da azkar dispartzen daben horietakua, aurretik prestatzen da, zer gura daben jakittun. "Zer nahi dozun jakittia da printzipalena: momentua, argixa... halako gauzeri erreparatu behar detsezu. Zenbat bidar juango nintzan toki berera nik nahi nebana etara arte!". Halanda be, askotan "errebela arte ez dozu jakitten" zer lortu dozun irudixa zuria egittian.

Biajiak be argazkixen arabera antolatzen



Bilboko itsasadarra.

dittu, "bakarrik juateraiño askotan". Argazki-biajiak egin dittuala onartzen dau eta, halakuetan be, zuri-beltza nagusi. Hainbeste kolore daukan Indian bertan be bai? "Baita han be, Baltikoko herrixetan lez. Oin, digitalarekin, koloria askoz merkiagua da eta politta ikusten da... baiña, politta izatiak, argazkixa ona dala dakar?"

#### Deporreko komisiño potentia

Estudixuan be lan mordua egitten dau Irigoienek: erretratuak, billuziak... Gertuko etorkizunari begira, bi serie dittu gaur egun buruan: "Billuziek, klaroskurua erabillitta bata; hor parte bat argixa izango zan eta bestia ixa dana illuna. Eta analogikuan bi emakumerekin egin nebana errepikatzia igual... Ikusiko dogu". Modeluak lortzia lanik emoten daben galdetuta, "se-



Baltiko.



Irigoien oin dala urtebete hasi zan prestatzen gaur zabalduko daben erakusketia.

riotasuna erakutsi eta ibilbidia eginda badaukazu" ezetz diño.

Vietnameko jendiaren prestutasuna eta laguntzeko joeria nabarmentzen dau; herri musulmanetan kontuz ibilli beharra be bai. "Beti be, errespetuz jokatu bihar dozu; ezin zeinke agresibua izan". Gogua dala Afrika baltzera barrero bueltatzeko, "baiña egoeria asko txartu da azken aldixan: Mali, Nigeria... ez dira izan ziranak. Kenia hor dago, baiña turistizatuegi ikusten dot". Eta ez dator bat umiak fotografiatzia erraza dala diñuekin: "Argazki on bat egitteko aurrelana biharrezkua da".

Harro egoteko motiborik be badauka: aurkezpen ekitaldixan inguruan izango dittuan Deporreko Fotografixa Komisiño taldekidiak azken urtiotan egindako ibilbidia. Sari Nazionala jaso eben oin dala urte batzuk eta martitzenero batzen dira "esperientziak tartekatzeo. 50 lagunetik gora gagoz eta 15-20 bat edozein lehiaketetan sarixak irabazteko gauza diranak, kalidadeko lanekin".

**f**

**Funeuskadi Eibar**  
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27      Bulegoa: Bidebarrieta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**

☎ 943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

**GRUPO Funeuskadi**  
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·

NO SOMO BUREAU VERITAS Certificados Fin. Teatros y Crematorios

**matrikula zabalik**

**2013/14 EUSKARA IKASTAROAK**  
goizeko 07.00etatik aurrera

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**  
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**  
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

**ON LINE**

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

Udalaren laguntzaz **BEKA SISTEMA**

**eibar@aek.org**

**Sostoa 1, 1. solairua      Tfnoa: 943 201 379**

**Gaur gabean Legarreko jaietan Garrapata taldea zuzenean entzuteko aukera izango da, 22.30etatik aurrera Mild Goatsup taldekoekin batera emango duten kontzertuan. Auzoan dauden lokaletako batean entseguetan orduak eta orduak pasatzen badituzte ere, bertako jaietan lehenengoz joko dute eta taula gainera ilusioz beteta igoko direla kontatu digu taldeko abeslariak.**

**- Taldea sortu zela urte batzuk pasatu dira, baina nola aurkeztuko zenuke Garrapata ezagutzen ez zaituztenen aurrean?**

Taldea 2004an, musika gustoko genuen koadrilako lagun batzuk elkartu eta jotzen hasi nahi genuela bururatu zitzaigunean. Hasieran lau ginen, baina batek taldea laga eta harrezgero hiruok elkarrekin dihardugu, Borja bateria eta koroak egiten, Joseba bajurekin eta abesten eta ni neu, gitarrarekin eta abesti batzuei ahotsa ipintzen. Gustatzen zitzaigun musika hori gu geuk zergatik ez genuen joko galdera buruan, hortik tira egin da sortu genuen.

**- Nolatan joko duzue Legarreko jaietan?**

Hirurak eibarrak gara eta Legarren musikari gazteentzat dauden lokaletako batean egiten ditugu entseguak. Antolatzailleek jaietan kontzertua emateko proposamena egineta guk pozik baietz erantzun genien, kontzertua ematen dugun guztietan disfrutatu egiten dugulako. Are gehiago Legarreko jaietan, azken batean gure taldearen lokala auzoan bertan dagoelako.

**- Udalak Legarren herriko musikari gazteentzat lokalak zabaldu zituela urteak pasatu dira, baina nolako da bertako martxa gaur egun?**

Lokal guztiak beteta daude,

orain dela gutxira arte zazpi lokal zeuden eta, hala ere, lokal gehiago behar zirela ikusita beste bi gehiago prestatu dira. Beraz, une honetan tamaina ezberdina duten bederatzita lokal daude, taldeek entseguak eta egin beharreko beste lanak egiteko. Lokalaren tamainaren arabera, bakoitzean talde gehiagok edo gutxiagok jarduten dute. Guk, adibidez, beste bi talderekin batera erabiltzen dugu lokala eta, taldeen artean ordu-tegi modukoak zehaztuta, bakoitzak egun eta ordu jakin batzuetan erabiltzen dugu, ondo moldatzen gara. Guk zorte handia izan genuen, taldea sortu eta nahiko azkar lortu genuelako lokaletako batean sartzea, itxaron-zerrenda luzeak egoten dira oraindik ere.

**- Taldearen disko bakarra ere bertan grabatu duzue, ezta?**

Bai, Garrapata taldearen disko bakarra den hau berez 2011n grabatu genuen Legarren horretarako dagoen grabazio estudioan, baina aurtengo urtarilerara arte ez da kaleratu. Diskoa osatzeko guri gehien gustatzen zaizkigun abestiak aukeratu genituen, denetarik dago: berez guk sortutako abesti batzuk baditugu, baina horiekin batera Eskorbuto, R.I.P., Cicatriz eta beste talde batzuren abesti ezagunak ere oso gustora jotzen ditugu oraindik ere.



Mario Romero, behean. Goian, Borja eta Joseba.

Mario Romero  
(GARRAPATAKO AHOTSA)

**"Legarreko lokalak izatea zortea da"**

**BARRIO** autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es  
info@autocaresbarrio.es

**MOBILA: 659 87 89 89**  
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

**• tartak**  
**• enkarguak**  
**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

*Herriko euskalgintzaren eskaintza aterako dute bihar kalera Untzagan egingo den Euskaraz Bizi Nahi Dut azokan. Iaz lehenengo aldiz egindakoari jarraituta ere, bigarren edizio honetan ez da izango herri-lasterketarik (hemendik aurrera Asier Cuevasek omenezkoa egingo baita urrian) eta azokak hartuko du haren lekua. Ekitaldi berria goizeko 11.00etan hasiko da eta 14.00ak arte iraungo du eta dena prestatzen eta antolatzen hogeitaz taldek jardun dute, guztiek ere euskararen arloan eskaintzen dituzten aukerak bihar goizean erakusteko prest. Ez galdu, beraz, aukera bikain hori.*



*Martitzenean aurkeztu zuten biharko prestatutako egitaraua. SILBIA HERNANDEZ*

**BIHAR GOIZEKOA "BANDO MODUKOAREN IRAKURKETAREKIN HASIKO DA"**, antolatzaileek diotenez. Eibarren Euskaraz Bizi Nahi Dut izeneko dokumentua Leire Narbaiza ...eta kitto!ko bazkideak eta Elena Stodulka euskaltegiko ikasleak irakurriko dute eta, behin agerraldiko hori irakurrita, elkarteetako eta bildutako jende argazkia aterako da Untzagako eskilaretan. Jarraian bertaratutakoen sinaketa ekitaldia egingo da eta horrek paso emango dio 14.00ak arte iraungo duen azokari. Hor Eibarren euskera ikasi, erabili eta aberasteko aukera eta baliabideak eskaintzen dituzten elkarte eta erakundeek hartuko dute parte, besteak beste bakoitzak bere lanaren berri emateko: Udal Euskaltegia, AEK, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Arrate Kultur Elkarte, Hankamotxak bertso Eskola, Udala, Euskal Herrian Euskaraz, Kontseilua, UEU, Badihardugu, Ahotsak.com, Astixa, Zeramika Eskola, Dibujo Eskola, Juan Bautista Gisasola Musika Eskola, Armagintzaren Museoa, Kezka Dantza Taldea, Klub Deportiboko Kultura Batzordea, Juan San Martin Liburutegia, Ego Ibarra batzordea eta Eibarko Kantuzaleak izango dira parte hartzen.

## Eibarren Euskaraz Bizi Nahi Dut

Azoka 11.00etan zabaldu baino lehen, ordu laurden lehenago-edo, elkarte eta erakundeetako ordezkariak zein herritarrei Untzagako harmailera gerturatzeko eskatu diete antolatzaileek, talde argazkia ateratzeko asmoa dagoelako. Azokaren inguruan, bestalde, jarduera osagarriak egingo dira goiz guztian zehar: bertso-jokoa, lehiaketa eta musikarekin batera, umeentzako tailerrak eta jolasak izango dira, gazte eta helduendako mintzodromoak funtzionatu du 12.00etatik 13.00a arte, eta baita Kalamuako Parlamentuak 13.00etik 14.00ak arte. Azokara joaten direnek hainbat sari (Coliseoko ikuskizunetarako sarre-  
rak tartean) irabazteko aukera izango dute orduero, 12.00etan, 13.00an eta 14.00-etan egingo diren zozketetan; horretarako, stand-etan izena eta telefonoa emateko aukera egongo da. Aipatutako guzti horrekin batera, Indianokua gaztelekuak ate ire-

kien jardunaldia egingo du gure herriko euskaltegietan kurtso berrirako izena emateko aukera ere egongo da. Ez galdu, beraz, orain da sasoi-eta.

### Gaur bertso-saio musikatua

Gaur gauean, bestalde, Hankamotxak bertso eskolak antolatuta, bertso-saio musikatua egingo da Txaltxa Zelaiko auditorioan, 22.00etan hasita. Ekitaldian Arkaitz Oartzabal Xamoa, Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen eta Jon Martin bertsolari-ekin batera, Xabier Matxiain eta Gari Otamendi musikariek eta Harkaitz Casabal gai-jartzaileak hartuko dute parte. Ekitaldi berezia guztion gozamenerako antolatu dena, bertsoak eta musika lotuta oso zale-  
tuak ez direnak ere animatzeko modukoa.

Ez dago aitzakiarik, beraz, euskaraz eskaintzen dizkiguten abantaila horietaz baliatzeko. Eta gozatzeko, bide batez.



**JUAN LUIS**  
**Ulazia Landa**  
2. urteurrena  
(2011-IX-25)



**"Gure artean ez bazaude ere, GUREKIN zaitugu BETI" ETXEROAK**

# GREMIOEN

# GIDA

## ANTENAK

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**  
Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## AROTZAK

**IÑAKI**  
Egurrezko mota Ateak - Tarimak  
guztietako lanak Altzariak  
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

**SUP** SUKALDE ALTZARIAK  
\*  
AROTZEGIA  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behe Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad**  
688 674 242 **alberto**  
INSTALAZIOAK ETA  
instalaciones y mantenimiento  
MANTENIMENDUA  
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM  
dasilvaalberto@hotmail.es

**GURIA**   
ELEKTRIZITATEA **Matsaria 2**  
Muntaia eta 7. pabilioia  
proiektu elektrikoak Tel. 943 70 08 95  
Fax. 943 82 00 27  
www.electricidadguria.com

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,  
KONPONKETAK  
ETA INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK  
**ibarra** 677 51 24 62  
943 20 06 97



# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## GARBIKETAK

**TREJO**  
GARBIKETAK S.L.  
Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soralue  
*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

**CAMILO ALVAREZ** IGELTSERITZA  
- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.) OROKORREAN  
- Gremioen koordinaketa  
Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.  
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSERITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA  
*eraikuntzak erreformak igeltsaritza*  
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA

**Fontanería Jardines**  
Gasa  
Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia  
Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929  
Jardiñeta, 11 B  
[fontaneriajardines@euskalnet.net](mailto:fontaneriajardines@euskalnet.net)

**MUGICA**  
ITURGINTZA  
K21  
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...  
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA  
Egiguretarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
[info@cristaleriaacha.com](mailto:info@cristaleriaacha.com) ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

## PINTURAK

**AIXA**  
DECORACIONES  
José Luis Irionda  
Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak  
Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto**  
PINTOREAK  
Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa  
Errebal, 21  
Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**  
• Nexa Autocolor  
• Pintura industrialia  
• 3M produktuen banatzailea  
MATSARIA, 34 behea - A  
[parrate@terra.es](mailto:parrate@terra.es)  
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

**MALVAR**  
PINTURAS  
Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA OROKORREAN  
BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...  
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)

## Eibar FT-ko hamaikako idealaren bila

2015ean Eibar Foball Taldeak 75 beteko dituela-eta, antolatu diren ekimenen artean, hamaikako idealaren bozkatzeko prozesua amaituta, beste fase bati ekin zaio. Horrela, orain arte postu ba-



Murgiondo bost aukeretakotatik irribar handiarekin.

koitzerako aukeratutako 5-6 jokalarien artean aukeratu beharko da (abonatuek bakarrik har dezakete parte prozesu berrian, 19402015@sdeibar.com helbidera emaila bidalita). Astero postu bateko hautatuen izenak emango dira, euren artean aukeratzeko, modu horretan urte amaierarako hamaikakoa eta entrenatzailearen izenak jakin ahal izateko. Aste honetan Aputxiano, Murgiondo, Garmendia, Almunia, Iraizoz eta Xabi Irujeta atezainen artean aukeratu beharko da.

## Aitziber Urkiola hirugarrena Donostiako triatloian

Hainbat distantziako zor-tzi proba jasotzen dituen Wild Wolf Triathlon Series By Polar zirkuitoak eta horietako zazpigarrena domekan jokatu zen Donostian. Gure herriko hiru atleta izan ziren 345 parte-hartzaileen artean, podiumera igotzea lortu zuen Aitziber Urkiola tarteko (23 urtetik azpiko onena izan zen bera). German Amuategik 89. postuan amaitu zuen proba, Eduardo Kapelastegik 143.ean eta Urkiolak 148.ean, hirurak ere ordu eta erdi baino denbora laburragoan.



## Neurketa parekatuak foball-zaletuen lehen jardunaldian

Alkidebak lortu zuen garaipen argiena (4-1 Txokori) foball-zaletuen ligaren hasierako jardunaldian eta horrek lidergoa eman dio. Bestelako neurketak parekatuagoak izan ziren: Garajes Garcia eta Azkena Kaltonek 3-1 irabazi zieten Aretori eta Fontaneria Mujikari, hurrenez hurren, Irukik 2-1 Koskorri, Sporting-ek 3-2 Caseriori eta binako berdinketa izan zen EzDok-Esmorga eta Tan-kemans-Durango partiduetan.



Jon Arriaga eta Julen Altzibar.

## Ruibalek bihar ekingo dio Gipuzkoako Lehen Mailari

Santo Tomas Lizeoa hartuko dute bihar eibartarrek Ipuruan (16.30etan), maila berriari eusteko lehenengo pausua emateko asmoz. Zazpi urte behar izan ditu laugarrenez lurraldeko maila gorenera igotzeko. Aurrekoetan lortu ezina (mailari eustea) dute helburu Jon Arriaga entrenatzaile berriaren aginduetara jardungo duten saskibaloilariek: ez da aur-

kari samurra izango, azken denboraldian sailkapeneko lehena izan baitzen, gero igo ez arren.

Berritasun gutxi izango ditu taldeak: Arriagak Miguel Angel Sanchezen tokia hartuko du entrenatzaile lanetan eta, Gergori Prietok eta Mario Martinek taldea laga duten bitartean, Julen Altzibar zarauztarra da fitxaketa berri bakarra.

## 57 parte-hartzaile izan zituen Simon Aldazabal igoerak

Iaz baino parte-hartzaile bat gehiago izan zuen domekan jokatu-tako Aldazabal antxintxiketaldiaren 18. edizioak, emakumeetan Esther Pagei bakarra izan bazen ere lasterketan. Jose Mari Bernedo eibartarrek 13 segundoko tartea kendu zion Jon Azpiazuri azken tramoan proba irabazteko eta Iñigo Urtiaranek osatu zuen podiuma. Juan Aldai aurreneko edizioetako irabazlea (55 urtetik gorako onena) berriro animatu zen proba egitera eta 4. postuan amaitu zuen, Joseba Altunaren (35etik gorako onena) aurretik. Iñigo Unanuek 8. postuan amaitu zuen eta bera izan zen 45 urtetik gorako onena, Roberto Gartzia lehen eibartararen saria eraman zuen, Juan Jose Malvarrek 65 urtetik gorako onenarena eta Pello Osorok Oberenak emandako 1. kilometrotik pasatzen zen onenaren saria eraman zuen.



Esther Pagei eta Jose Mari Bernedo. LEIRE ITURBE

## Bizikletaren Eguna egingo dute etzi goizean

Adin guztietarako egitaraua osatu dute Eibarko Txirrindulari Elkartekoek domeka goizerako, tartean mountain-bike, zikloturismoa, gimkana, triziklo eta umeendako motorren parte-hartzearekin. Egitaraua honako probek osatuko dute: 09.30etan, mountain-bike martxaren irteera Untzagatik (Soraluze, Karabieta, Larrabiltzearra, Karabieta eta Unbe); 10.00etan, zikloturista martxaren irteera Untzagatik (Eibar, Trabakua, Markina, Ondarroa, Deba eta Mendaro); 11.30etan, 8tik 10 urtekoentzat,



itzuli bi zirkuitora (T. Etxebarria, Zuloagatarren, Calbeton, Untzaga eta T. Etxebarria); 11.45etan, 8tik 12 urtekoentzat, hiru itzuli aurreko zirkuitora; eta 12.00etan, gimkana Untzaga plazan. Salda eta

txorizoa izango da zikloturista eta mountain-bike martxetan parte hartuko dute. Bestalde, 0-8 urtekoentzako gune bat egokitu dute euren triziklo eta motorrak erabiltzeko.



## Cristina Loedak irabazi zuen Elgoibarko Gau Krossa

Eibarko atletak 2011n, probaren bigarren edizioan, lortutako garaipena berretsiz zuen Elgoibarren jokatzeko den gau giroko atletismo proban. 245 lagunek hartu zuten parte zapatu iluntzean jokaturako IV. Gau Kross horretan. Gizonezkoetan ere, Yeray Varela oñatiarrak, orain dela bi urtekoa berretsiz, proba irabazi zuen, 24 minutu eta 19 segundoko denborarekin; emakumezkoetan, Cristina Loeda eibartarra izan zen azkarrena, 30:36 denborarekin. Hortaz, Loedak zein Varelak 2011ko Gau Krossan lortu zituzten garaipenak errepikatu zituzten.



Hoyos, erdian.

## Hoyos karate irakaslea gerriko beltza 3. dan

Karateko Euskal Federazioak egindako azken azterketetan, Jose Antonio Hoyos Kalamua Klubeko karate irakaslea gerriko beltza 3. dan maila eskuratu du. Bestalde, Nekane Muguruza kadetea eta Eneko Lores jubenila Tolosako Usabal kiroldegian Euskadi ordezkatuko duten taldeak osatzeko egindako entrenamenduetan izan ziren asteburuan.

## Eibar Eskubaloia txapeldun Arrasaten

Egiari irabazita Euskal Kopan aurrera egin eta gero, eibartarrek Arrasateko torneoaren bereganatu zuten. Hala ere, oraindik ez dute lortu ia zoko mailara heltzea eta lan nekeza izan zuten garaipenak eskuratzeko: finalerdian Elgoibarri 20-18 nagusitu zitzaizkien, bigarren zatiaren 8. minutuan 10-14 galtzen joan eta gero. Finalean, bestalde, 22-21 irabazi zieten etxekoei, arrasatearrei. Bihar liga hasiko dute Ipuruan, 19.00etan igo berria den Leioako Quiron Askartza hartuta. Partidu horretarako, Fernando Fernandez entrenatzaileak jokalariek guztiak izango ditu bere aginduetara (zalantza bakarra Jon Mikel Lejardi pibota da).

### Iriartek min hartu du

Aurten Somos Eibar Eskubaloitik Bi-



Ander Iriarte.

dasoara jauzia eman duen Eibarko alboko ezkerrek min hartu zuen irundarrek Logroñon jokaturako Asobal ligako lehenengo partiduan. Ezker belau-neko lotailu gurutzatua apurtu zuen eta ia denboraldi osorako baja izango da. Zortea opa diogu eibartarri.

## berriak

### XAKEA

Xake Eskolako matrikulazioa zabalik dago jada ikasturte berrirako. Klaseak LHko 6. mailara arteko ikasleendako dira eta barixakuetan egingo dituzte, 17:30etatik 18:30tara (aldatu daiteke, parte-hartzaileen arabera). Klaseen prezioa hiruhilabeteko 30 €koa da eta klubeko bazkide izan beharra dago. Matrikula egiteko azken eguna hilaren 27a izango da eta klaseak urriaren 4an hasiko dira. Matrikula egiteko xakea@deporeibar helbidera idatzi dezakezue.

### FOBALLA

"Armagiñak jotake" talde berriaren aurkezpena izango da domeka arratsaldean Unben, 18.00etan hasiko den partiduan. Aurkaria Lekeitio izango da eta Unbeko goiko zelaian jokaturako da. Talde berria iaz Eibartarrek-eko erregional mailako jokalariekin osatu dute, euren esanetan "gazteek gazteentzat" sortutakoa.

## M<sup>a</sup> JESUS AGIRRE (Eibarko Kantuzaleak)



### “Eibarren giro euskalduna zabaltzea nahi dugu”

*Ikasten elkartearen eskutik jaio zen Kaleetan Kantuz taldearekin bost urte jardun eta gero, proiektu berriari heldu izan diote hainbatek eta, Euskal Herriko abestien errepertorioa euskera hutsean abestu eta herritarren artean zabaltzeko asmoari jarraituta, Eibarko Kantuzaleak izeneko talde berria sortu dute. Maria Jesus Agirre zuzendariak azaldu dizkigu federatu berri den abesbatzaren ingurukoak.*

**- Aurreko astean ekin zenioten bideari, lehen entseguarekin. Zer moduz hasi zarete?**

Orain arte birritan baino ez gara elkartu, baina entsegu egun bietan 25 lagun inguru batu gara eta denborarekin jende gehiago batzen joatea espero dugu. Orain arte gehienak emakumeak gara eta, horregatik, gizonak animatzea gustatuko litzaizuke. Entseguak astelehenetan egingo ditugu, San Andres elizako lokaletan, 19.00etan hasi eta 20.30ak arte. Ateak zabalik dauzkagu abestea gustatzen zaion edozeinentzat.

**- Nolako da bakarrik euskal kantuekin osatutako errepertorio hori?**

Euskal Kantuzaleen Elkarteak eta Garak argitaratutako "Euskal Herria kantuz: 101 abesti kantatuenak" erabiltzen dugu. Lehenik eta behin, kantu-liburuak jasotako errepertorioa betetzen joango gara eta, behin horrekin amaituta, orduan ekingo diogu abesteko modua-eta gehiago lantzeari, bi ahotsetan kantzeari eta bestelakoei. Liburu berbera erabiltzen dute Euskal Herri osoan zehar, hainbat herritan martxan dauden 80 bat taldek, euskal kantak eskaintzen dituzten abesbatzen zirkuito modukoa osatuta. Norbaitek liburuan interesa izanez gero, gure entseguetara gerturatu eta 7 eurotan erosteko aukera dauka.

**- Hasi berriak zarete, baina hitzordu batzuk lotu dituzue...**

Lehena bihar bertan, Untzagan egingo den Euskaraz Bizi Nahi Dut azokan. Ilusio handiarekin joango gara, taldearen helburu nagusia Eibarren giro euskalduna zabaltzea da eta, horregatik, beti prest egongo gara herrian euskera hedatzeko antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko. Azokan kantu-liburua, zapiak-eta salgai ipintzeko asmoa daukagu, ia beste herri batzuetan abestera joaten garenerako gastuekin laguntzeko diru pixka bat batzen hasten garen. Hilaren 28an bertan egingo dugu lehen irteera, Aretxabaletan egingo den jaira joateko gonbidapena egin digute-eta.



## Euskerazko antzezlanaren Txaloretan

**Gaur 20.30etan taularatu dute Coliseoan "Pottola" antzezlanaren (euskeraz) Txalo konpainiakok (sarrerak bertan salgai, 8 eurotan).** Lur Korta protagonista nagusiarekin batera Aitor Fernandez, Joseba Usabiaga, Egoitz Sanchez eta Ainhoa Garai aktoreek jardungo dute. Taula gainean gizon arrakastatsua den Gorka beharko lukeen baino kilo gehiago dituen Elenarekin maitemindu eta elkarren arteko harremanaren inguruan sortzen diren egoerak antzeztzen.



## Liburu aurkezpena eguaztenean

**Datorren asteko eguaztenean (hilaren 25ean) 19.00etan aurkeztuko du "Dime una palabra" bere lehen liburua** Marta Quintin Maza kazetariak, Juan San Martin liburutegiak hartuko duen ekitaldian. Gaur egun Eibarko Cadena SERen beharrezko diharduen kazetariak EFE agentziak Nueva Yorken duen ordezkartan zegoela, 2012ko irailean eman zuen argitara lana eta datorren astean nobelari buruz jakin beharreko guztiak egilearen ahotik zuzenean entzuteko aukera izango da.

## Arteterapia eta sormena lantzen

**Defibel Debabarreneko fibromialgia eta astenia kronikako** elkarteak arteterapiaren inguruko ikastaro irekia antolatu du. Ordu eta erdiko lau saio izango dira denera, bat asteko eta lehena aste honetan, eguaztenean egin zuten. Hurrengo saioak ere eguaztenean egingo dituzte, Portalean (B batzartokian) irailaren 25ean eta urriaren 2an eta 9an, 17.00etatik 18.30etara. Klaseak Ana Perez Lizarraga psikologo-psikoterapeutak emango ditu. Informazio gehiagorako 648 977 587 telefono zenbakira deitu daitezke.





## Hamar ikastaro UEU-k udazkenerako

Eguaztenean aurkeztu zuten Markeskuan udazkenerako UEU-k prestatu dituen hamar ikastaroak eta horietatik bost on line eskainiko dira, "horrelakoetarako ikasleko potentziala badagoelako eta, horrela, eskaintza klasera etorri ezin direnei gerturatzeko aukera daukagu". On line ikasi daitezkeenak "Geogebra aurreratua", "Krisia eta kudeaketa publikoa Euskal Herrian", "Kultura arteko hezkuntzaren garapena", "Moodle 2.3-ren oinarriko erabilera" eta "Ubuntu eta software libreria sarrera" dira. Markeskuan emango dituztenak "Emozioak eta norberaren gaitasunak lantzen", "Eskola libre eta demokratikoa: gizarte aldaketarako tresna eta gako", "Isiltasuna gelan", "Jendaurreko komunikazioa" eta "Sormen-tailer aurreratua".

Azpimarratu zuten, ikastaro hauetan izena ematen duten gipuzkoarrentzat dirulaguntza bereziak egongo dira, Foru Aldundiak UEUren on line irakaskuntzaren lerroa babesteko emandako diruari esker". Izena emateko epea zabalik dago eta, beraz, inte-



**Mari Karmen Menika antolatutako ikastaroen aurkezpen ekitaldian. SILBIA HERNANDEZ**

resa duenak [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean aurkituko du ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza eta matrikula bertan betetzeko aukera ere izango du (bestela, 943821426 telefonora deitu daiteke).

## La Vijanera kalejira ikusgarria

Bien Aparecida Kantabriako amabirjinaren ohorezko jaien harira, zapatuan La Vijanera jaia bertatik bertara bizitzeko aukera izan genuen, Kantabriako Etxekoek gonbidatuta Si-



lio herritik etorritako La Vijaneraren lagunen elkartekoen kalejirari esker. Jaia, berez, urteko lehen domekan egiten dute, baina Eibarko Kantabriako Etxekoek Bien Aparecida ospatzeko antolatu duten egitarauari esker aurreko asteburuan neguko maskarada ikusgarriki zeharkatu zituen gure herriko kaleak. Zapatua biribiltzeko, gainera, txorizo jana eta folk kontzertua egin zituzten. Hurrengo asteburuan agurtuko dituzte jaiak Kantabriako Etxekoek, zapatuak (hilaren 21erako) antolatu duten mahai-joko txapelketarekin eta domekan jokatu dituzten toka, igel-toka eta "cuchillo" jokoekin.



## laburrak

### CIELITO KONTZERTUAN

Domekan, 12.30etan Coliseoan hasiko den kontzertuarekin ekiongo diote ikasturteari Cielito Musika Bandakoek. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduta, egitarau honi jarraituko diote bandakoek: "Pepita Greus" (pasodoblea, J. Texidor), "La corte del faraon" (aukeraketa, Mtro. Ileo), "Iparragirre" (potpourria, Carlos Sanchez-Barbaren moldaketa), "Jesuschrist Superstar" (aukeraketa, A.L. Webber) eta "The Beatles in concert" (Lennon eta McCartney).

### ARGAZKILARITZA ON LINE


Juan Antonio Palacios Deporrek argazkilaria urtean zehar argazkilaritza digitalaren inguruko ikastaroa ematen ibili da Portalean. Kurtsoak iraun duen bitartean, Palacios klaseetarako materiala batzen joan da eta, horri etekina ateratzeko asmoz, [www.juanantonioalacios.com](http://www.juanantonioalacios.com) webgunean bideoan zintzilikatu du, nahi duenak doan eskuratzeko moduan.

**OLGA ELORZA  
GALLASTEGI**  
(2012-VIII-29)

**LUIS ARRIETA  
ETXEBERRIA**  
(2010-VIII-23)



**Izan zirelako gara eta garelako izango dira.**  
ZUEN FAMILIA



○ Euskal aditzen jokaera sakelari

"Aditzak.com" webgunearen aplikazioa sortu dute Android eta iPhone telefono adimendunetan erabili ahal izateko. "Euskararen profesionalentzat" bada ere, euskara ikasteko ere balio du programak. Orain dela urte bi sortutako aditzak.com webgunearak eskaintzen duen aukera berri honen aplikazioa doakoa da eta erabiltzeko erraza. Behin aditzaren modua, aldia eta mota hautatuta, pantailan berehala agertuko da aditza jokaturik. Orain aplikazio osoagoa dute helburu: euskara baituan ez ezik, euskalki nagusietan jotzeko aukera eskaintzea.

# euskararen txokoa

○ Euskararen erabilera indartzea

Hori izango da datozen urteetarako Eusko Jaurlaritzak onartzeko asmoa duen Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP) bilatuko duena, horrela ezagutzarekin dagoen aldea murrizte aldera. Elebitasun orekatua eta normalizazio soziala lortzeko, euskararen transmisioan, erabileran eta kalitatezko produktuen ekoizpenean jarriko dituzte indarrak. Horretarako, 99 neurri, 353 ekintza eta 140 adierazle sortu dituzte, hamasei lan esparrutan banatuta. EH Bilduk, baina, euskalduntze prozesuan jauzi bat emateko aukera galdu dela salatzen du.



## Bertsolari Txapelketa Nagusia ate joka

Dagoeneko prestatu dute Bertsolari Txapelketa Nagusiaren egutegia, eta irailaren 29an hasiko den ibilbideak abenduaren 15ean izango du amaiera. Ordura arte sei kanporaketa eta ondorengoko zazpi finalurreko jokatu dira Barakaldoko BEC-en izango den finalera ailegatu aurretik. Kanporaketak honakoak izango dira: Amasa-Billabonan (irailaren 29an), Markina-Xemeinen (urriaren 5ean), Hendaian (urriaren 12an) eta Altsasun (13an), Legazpin (urriaren 19an) eta Oionen (urriaren 26an). Finalurrekoak Gernika-Lumon (azaroaren 9an) eta Tolosan (10ean) hasiko dira, honako herrietan jarraitzeko: Oiartzunen (azaroaren 16an) eta Murgian (17an), Elizondon (azaroaren 23an) eta Donostian (24an) eta Maule-Lexarrenen (azaroaren 30ean). Euskal Herriko Bertsotzale Elkarteak sarrerak aurrez erosteko aukera eskaintzen du, [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) helbidean. Finaleko sarrerak, bestalde, hainbat lekutan lortu ahal izango dira; gure herrian, Arrate Kultur Elkartearen egongo da eskuratzeko aukera.

## The Beatles berriz zuzenean

The Beatles taldea sortu zela 50 urte bete dira eta, horren aitzakiarekin, munduko beste hamaika tokitan egindakoaren bidetik, egunotan Eibarren ere Liverpoolerako musikariei eskainitako hainbat jarduerarekin. Atzo Jesus Ordovasek hitzaldia eman zuen Portalean eta, besteak beste, taldearen musikak ondorengo taldeengan izandako eraginaren garrantzia azpimarratu zuen. Datorren martitzenean, berriz, George Dunningek zuzendutako "Yellow submarine" marrazki bizidunen filma emango dute Coliseoan, egunean zehar bakarrik herriko ikasleentzat eta 20.30etan,

berri, ikusi nahi duten guztientzat (sarrerak 3 eurotan salgai). Pelikula ingelese proiektatuko da, gaztelarazko azpitituluekin lagunduta.

Eta egitaraua biribiltzeko, datorren asteko egunean (hilaren 26) The Shouts (Beatles Tribute Band) taldeak kontzertua emango du



20.30etatik aurrera Coliseoan (sarrerak 20 eurotan salgai). Taldearen ikuskizuna mundu mailan The Beatles taldeei eskainitako guztien artean maila gorenean dago eta Liverpoolerako hartu zuen International Beatle Week jaialdian Argentina eta Hego Amerika osoa ordezkatzeko aukeratu zuten.



**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax 943 202564

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, UXUE, martitzenian urtebete egingo dozu-eta. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, DANEL!! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, atzo sei urte bete zenuzela. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ODEI, gure basatitxua. Bixar hiru urte beteko dozu eta mutil haundixa bihurtu zara. Ondo pasau, gure potxolo.




Zorionak, YURENE Rodriguez Sesma, atzo bost urte egin zenuzela-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, MALEN, datorren eguaztenian zortzi urte egingo dozu-eta. Muxu bat aitaxo eta amatxoren partez.




Zorionak, UNAX Garcia Beroiz, atzo sei urte bete zenuzela-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, MARTXEL, gaur sei urte betetzen dozu-eta. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUKEN, bixar bi urtetxo beteko dozu-eta. Patxo bat etxeko danon eta, batez be, Anderren eta Jonen partez.



Ongi etorri, DANEL, abuztuaren 30ian jaixo zifalako, eta zorionak gurasueri. Aittita, amama, osaba Asier, izeba Naia eta osaba Asierren partez.



Zorionak, JONE, zeure bigarren urtebetetziaren. Muxu potolua famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, AMETS, gaur hiru urte betetzen dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Ongi etorri, SAIOA!!! Zorionak amatxo eta aitaxori eta muxu haundi bat JOANERen partez.



Zorionak, AINHOA, eta ondo pasa zure egunian. Jarraitu beti bezaiñ alai eta guapa. Muxu haundi bat famelixaren partez.

## hildakoak

- Angela Ferrero Chimeno. 58 urte. 2013-VIII-12.
- Jose Antonio Urizar Zengotita. 50 urte. 2013-IX-12.
- M<sup>a</sup> Asuncion Arregi Guruzeta. 95 urte. 2013-IX-13.
- Antonia Juaristi Ostolaza. 89 urte. 2013-IX-17.
- M<sup>a</sup> Angeles Zulaika Barrenetxea. 96 urte. 2013-IX-18.

## jaiotakoak

- Nikole Laspiur Kortazar. 2013-IX-8.
- Paula Laspiur Kortazar. 2013-IX-8.
- Nazaret Moreno Dominguez. 2013-IX-9.

## zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)  
**21ean: 17.00, 19.45, 22.30**  
**22an: 17.00, 20.00**  
**23an: 20.30**

### "Guerra Mundial Z"

Zuzendaria: Marc Forster



(2 ARETOAN)  
**21ean: 16.30, 19.30, 22.30**  
**22an: 17.00, 20.00**  
**23an: 20.30**

### "El Llanero Solitario"

Zuzendaria: Gore Verbinski



(ANTZOKIAN)  
**21ean: 19.45, 22.30**  
**22an: 20.00**  
**23an: 20.30**

### "Asalto al poder"

Zuzendaria: Roland Emmerich



(ANTZOKIAN)  
**21ean: 17.00**  
**22an: 17.00**

### "Monstruos University"

Zuzendaria: Dan Scanlon



## BARIXAKUA 20

### LEHIAKETA

**18.00.** IV. Playback lehiaketa. El Corte Ingleseko terrazan.

### BATZARRA

**18.30.** Arrateko jaien inguruko balorazioa egiteko batzarra, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Eibarko Bizikleta Plazan ("Galerosen").

### LEGARREKO JAIK

**20.00.** Txupinazioa. Kalejira trikitilari eta buruhaundiekin.  
**20.30.** Patata tortila txapelketa.  
**21.00.** Herri afaria auzoko umeentzat.  
**22.30.** Kontzertua: Garrapata eta Mild Goatsup. Legarren.

### ANTZERKIA

**20.30.** "Pottola" antzezlan (euskeraz), Txalo konpainiaren eskutik. Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

### BERTSO MUSIKATUA

**22.00.** Bertso saio musikatua: Arkaitz Oiartzabal Xamoa, Beñat Gaztelumendi, Jokin Labayen eta Jon Martin bertsolariek, Xabier Matxiain eta Gari Otamendi musikariek eta Harkaitz Casabal gai-jartzailea. Hankamotxak bertso eskolakoek antolatuta. Txaltxa Zelaiko auditorioan.

### KONTZERTUA

**22.00.** Malenkonía Oñatiko taldea. Akats tabernan.

### MUSIKA

**22.30.** Aitor MU (KPK). Hirurok tabernan.

## ZAPATUA 21

### AZOKA EKOLOGIKOA

**09.00-14.00.** Nekazaritza Ekologikoaren II. Azoka. Barazkigileak, ogi eta gaztagileak... Aza ta Porrúa eta Biolur elkarteen informazio guneak.  
**11.00.** Gozogintza tailerra eta erlezaintzari buruzko erakusketa. Urkizun.

### EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

**11.00-14.00.** Eibarren Euskaraz Bizi Nahi Dut agerraldia. Jarraian euskararen azoka zabalduko da: euskalgintzako erakunde eta elkarteen erakusketa, umeendako tailer eta jokoak, mintzodromoa, bertso-jokoa, lehiaketak... Untzagan.

### LEGARREKO JAIK

**11.00.** Kalejira, trikitilarietan. Untzagatik zaharren egoitzaraino.  
**12.00.** Txorizo pintxopotea, Piztu elkartean.  
**13.00.** Umeentzako jarduerak.  
**14.30.** Herri bazkaria.  
**16.30.** Dantzaldia Etel eta Agirrerekin.  
**17.30.** Umeentzako ikuskizuna Pantxika eta Txinpartaren eskutik.  
**19.00.** Txokolate-jana.  
**20.00.** Kalejira buruhaundiekin.  
**22.30.** Kontzertua eta erromeria: Seafoid folk taldea eta Xero Xiette. Legarren.

### BIEN APARECIDA

**16.30.** Mahai-joko txapelketa. Kantabriako Etxean (Jardiñetan).

### LEHIAKETA

**18.00.** IV. Playback lehiaketa. El Corte Ingleseko terrazan.

## DOMEKA 22

### BIZIKLETAREN EGUNA

**09.30.** Mountain bike, zikloturismoa, gimkana, trizikloak... Eibarko Txirindularien Elkarrekin antolatuta. Untzaga, Calbeton, T. Etxebarria eta Zuloagatarren.

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

### BIEN APARECIDA

**16.00.** Toka, igel-toka eta "cuchillo" txapelketa. Ipuruako bolatokian.

## ASTELEHENA 23

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

## MARTITZENA 24

### THE BEATLES

**20.30.** "Yellow submarine", George Dunningek zuzendutako filma (ingelesez, gaztelerazko azpigituluak). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

## EGUAZTENA 25

### LIBURU AURKEZPENA

**18.30.** "Dime una palabra", Marta Quintin Maza kazetariak idatzitako liburuaren aurkezpena. Juan San Martin liburutegian.

### BATZARRA

**19.00.** Eibarko Sorturen plangintza aurkezteko herri batzarra. Portalean.

## EGUENA 26

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokaletan.

### THE BEATLES

**20.30.** The Shouts (Beatles Tribute Band) taldearen kontzertua. Sarrera: 20 euro. Coliseoan.

### MONOLOGOA

**22.30.** Axlora mago-komikoaren ikuskizuna. Laurel&Hardy tabernan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Jende guztiarengandik aparte egotea nahiko duzu, bakardadean. Pentsatu beharreneko kontua daukazu buruan.

### TAURUS

Horrela jarraitzekotan, ondorio latzak jasango dituzu. Egoerari buelta ematen saiatu, beranduegi izan baino lehen.

### GEMINI

Zurea bai pazientzia! Nola jasan dezakezu alboan duzun hori? Meritu handia duzu, baina pazientzia agortzen joango zaizu.

### CANCER

Besteek esan dezakete nahi dutena, baina buruan duzuna egiteko konbentziturata bazaudu, zure esku dago aurrera egitea.

### LEO

Ez duzu agian gripea izango, baina nahiko makal ibiliko zara hurrengo egunetan. Hobe hasieratik sendagilearengana joatea.

### VIRGO

Barixakua noiz helduko zain zaude: egun eskasak pasako dituzu... Datorren asteko horoskopoak zer dioen jakin nahian ala?

### LIBRA

Badakizu besteek zer entzun nahi duten eta berba goxoak besterik ez dituzu eurentzat. Tira, tira, engainatzen zabilzta!

### SCORPIUS

Baten bila ibiliko zara, zoroaren pare. Zerbait garrantzitsua duzu berari esateko eta, behingoz, ausartuko zara. Zorte on!

### SAGITTARIUS

Aste gogorra izan zen aurrekoa, baina oraingoa guztiz ezberdina izango da. Edozer gauza egiteko prest egongo zara.

### CAPRICORNIUS

Gauzak argi dituzun unetik irtengo zaizkizu ondo; ordura arte noraezan ibiliko zara. Pentsatu ondo zer erabaki.

### AQUARIUS

Barruko beroak txoratuta edukiko zaitu. Hobe duzu, bero hori elkarbanatzeko, alboan komeni zaizun besteren bat izatea.

### PISCIS

Gero eta lotsa gehiago daukazu eta ingurukoek ederki igarri dizute. Hala ere, ez pasatu eta ez bihurtu lotsagabe hutsa.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## erakusketak

### ✓ Irailaren 22ra arte

**SARA BEIZTEGIREN** akuarela tailerrekoen lanen erakusketa.  
Untzagako jubilatatu etxean.

### ✓ Irailaren 30era arte

**JUAN CARLOS PASCALEN** argazkiak.  
El Ambigú kafetegian.

**JUAN MARI IBARZABALEN** argazkiak.  
Klub Deportiboan.

**EIBARKO ARGAZKI RALLYKO** lanen erakusketa. *Portalea tabernan.*

### ✓ Urriaren 13ra arte

**JOSE LUIS IRIGOIENEN** "50 urte argazkigintzan eta gero hau! Euskal argazkilari baten lanak" erakusketa. *Portalean.*

## lehiaketak

### ✓ Urriaren 4ra arte

**ASIER ERRASTI EIBARKO XIV. LABURMETRAIA JAIALDIA.**  
Lanak aurkeztea eta informazioa:  
[www.eibar.net](http://www.eibar.net) eta [www.planocorto.es](http://www.planocorto.es)  
[webguneetan,cultura@eibar.net](mailto:webguneetan,cultura@eibar.net) helbidean eta 943708435 telefonoan.

### ✓ Urriaren 11ra arte

**INDALEZIO OJANGUREN XXVI. ARGAZKI LEHIAKETA**  
Lanak aurkeztea eta informazioa:  
*Portalean.*

### ✓ Urriaren 15era arte

**SANANDRESAK EIBARREN KARTEL LEHIAKETA**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Pegoran.*

## farmaziak

### ✓ barixakua 20

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

### ✓ zapatua 21

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

### ✓ domeka 22

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

### ✓ astelehena 23

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### ✓ martitzena 24

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ eguaztena 25

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ eguena 26

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ barixakua 27

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

			1	3		6	
	2		4			5	1
				7			3
9						7	8
	5						4
6		3					2
2				8			
	6	7			1		2
	8			6	7		

## SUDOKUA

1	5	2	4	7	8	9	3	6
8	3	7	2	9	6	5	1	4
6	4	9	1	3	5	7	8	2
9	7	5	3	1	2	4	6	8
3	2	8	9	6	4	1	5	7
4	6	1	5	8	7	3	2	9
7	1	3	6	2	9	8	4	5
2	9	4	8	5	1	6	7	3
5	8	6	7	4	3	2	9	1

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisia salgai Jardinetan kalean. 3 logela, egongela, sukaldia eta komunua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. 95.000 euro. Tel. 605-703603.

– Babes Ofizialeko pisua salgai Eibarko erdialdean, Ardantzakalean. Logela bat, egongela, sukaldia, komunua eta trasteroa. Azkenengo pisua. Terraza handia. Eguzkitsua. Tel. 660-369141 eta 669-731793.

– Pisia salgai Donostiako Txofre plazan, Groseko hondartzatik gertu. 2 logela, egongela balkoiarekin, sukaldia, bainua, hall eta trasteroa. Garaiea aukeran. Jantzita, bizitzera sartzeko moduan. Aukera ezinhobea. 320.000 euro. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, bi komun eta trasteroa. 130 m<sup>2</sup>. Igogailua. Guztiz berriak eta argitsuak. Tel. 626-203838.

### 1.2. Errentan

– Pisia alokagai Ipuruan. 2 logela, s ukalde-egongela eta komunua. Bero-gailua. Sartzeko moduan. Tel. 696-045050.

– Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 2-3 logela. Tel. 618-354218.

– Logela alokairuan eskaintzen dut Eibaren. Tel. 688-647244.

– Buhardila txikia alokagai. Txukuna eta zentrikoa. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. Tel. 656-759593.

– Neska pisua hartuko luke alokairuan Eibaren. Tel. 679-910991.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala erosiko nuke (50 metrokoa edo handiagoa) Eibar edo inguruan. Ura, elektrizitatea eta bainuarekin (jartzeko aukerarekin). Kontutuan izango da terrena, eskapatea eta bizilagarratasuna. Merke. Tel. 665-732640.

– Harategi-urdaitegia salgai Deban, jubiliazio delata-eta. Martxa batean, bezero partikular eta enpresekin. Lanear jarduteko makinaria guztiarekin. Oso errentagarria. Aukera bikaina. Tel. 943-191214 eta 943-192546. goizgali@yahoo.es

– Kontsulta saltzen dut Untzagako dorreetan. Eta alokairuan hartuko nuke hilabete erdirako. Prezio onean. Aukera ezinhobea. Tel. 943-278422 eta 685-916047.

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Pagaegi kalean. 65 m<sup>2</sup> eta 4'5 metroko altuera. Negoziorako aproposa. 375 euro hilean, gastuak aparte. Apartakalea alboan. Aukera ona! Tel. 600-946854.

– Garaiea alokagai Untzagako parking-aren ondoan. Marraduna. Tel. 658-339709.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-731324.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabalak. Esperientzia. Tel. 628-188028.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-180233.

– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-776778.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 696-802587.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 607-396018.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 627-652870.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-071463.

– Neska eskaintzen da arratsaldetan etxeak, pegorak edo bulegoak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600. Arrate.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 672-834167.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera edo sukaldari jarduteko jabetxean zein hoteletan. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da gozogle edo okin moduan eta kamarera edo saltzaile jarduteko. Tel. 622-654862.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Jornada erdirako. Tel. 680-121252.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Edozein ordutan. Tel. 657-156254.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserrian lan egiteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 688-302653.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 645-366850.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak edo sozietateak garbitzeko. Interna. Tel. 674-713262.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 600-005160.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 608-866535.

– Emakume euskalduna eskaintzen da gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 629-889465.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 640-315602.

– Haur Hezkuntzako goi mailako titulua eta EGA duen emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 660-522271.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko eta kamarero jarduteko. Tel. 686-077316.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-526228.

– Emakumea eskaintzen da garbitzaile lanetan jarduteko: bulegoak, etxeak, tabernak ... Tel. 664-111706.

– Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 672-584590.

– Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.

– Neska eskaintzen da goizez eta ateburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 638-047847.

– Emakume eibartarra eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Laguntzaile titulua-rekin. Tel. 616-607121 eta 943-207183.

– Neska eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hoteleko kamarera moduan. Tel. 606-354982.

– Eibarko neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 656-760716.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 616-328060.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. Tel. 618-814064.

### 4.2. Langile bila

– Emakumea behar da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-529935.

– Behargin euskalduna behar da zazi urteko umea zaintzeko, asteleheneretik ostegunera 16.00etatik 19.00etara. Tel. 605-724083 eta 615-752323. Ainar.

– Ofiziala behar da Eibarko ileapain-degi batean. Tel. 943-207207.

– Emakume euskalduna behar da nagusia Asteburuko Mallabian, gau eta egun. Asteburuak libre. Tel. 635-734646.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Ingeleseko Batxilergo edo First mailako irakaslea behar da etxean klaseak emateko. Tel. 652-700114.

### 5.2. Eskaintzak

– Ingeniaritza tituludunak klase partikularrik ematen ditu. LHtik Batxilergo arte, Heziketa Zikloak eta unibertsitatekoak. Talde txikiak. Tel. 669-622642. Mireia.

– LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. Tel. 685-739709.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle truke eta azterketen prestaketa. EOI. Tel. 670-793312.

– Azken kurtsoko Pedagogiako ikasle euskalduna eskaintzen da klase partikularrik eta ikasketa-teknikak emateko. Tel. 676894791.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Gitarra klasiko "espainiarra" salgai. Tel. 649-258913.

### 6.2. Eman

– Bi dortoka oparitzen dira, pisizina eta guzti. Tel. 675-712886.

– Txakurkumeak oparitzen dira. Tel. 685-739709.



# eibar GIDA 2014

**GIDA**  
**PRESTATZEN**  
**DIHARDUGU...**

Agertuko zara,  
ezta?

943 20 67 76  
**DEITU...** 943 20 09 18

## **Asko dira** gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun

 **innova**dental  
CLINICAS



### **Createch Medical-en**

etorkizuna gerturaten dizugu,  
implanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

 **bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

 **innova**dental [Azpeitia]  
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)